

Liburuak

KRITIKA

Nola izan liteke sortu nauen hura, niretzat ezer ez den hura bezalakoa?

Helduen literatura

Gema Lasarte

“INORK GONBIDATU ez nauen ehorzketa batera joateko egoera gogaikarrian suertatu naiz, bigarren aldiz nire bizitzan. Lehenengo aldia orain dela hamar urte izan zen nire umearen aitaren ehorzketan. Bigarren aldia gaurkoa, neronen aitaren ehorzketan”. Horratx eleberri honen muina, lehen orrialdean erakusleihu dena.

Lehen orrialdeak eztanda egiten dio Anne Berest-i eta irakurleari. Gainontzeko orrialde guztietan eztanda horri dagokion indarrari sintaxi eta semantika egokia bilatzeari lotzen zaio Berest. Esango nuke maisutasunez lortzen duela kontakizunaren harilkatze hori, modu zirkularrean eta zehatzean. Eta hortxe legoke Goncourt sarietarako finalista izan den eleberri honen inaktua.

Protagonista bakarra du eleberriak kontatzaille, bi ahizparen artean hezia, eta bi ahizpen arteko espazioan kontatu beharrekoa kokatzen duena, baina beste bi gizonen artean



Bere aitaren alaba.
Anne Berest.
Itzulpena: Jon Muñoz.
Alberdania.
112 orrialde. 14,80 euro.


bizitako denboran narratu beharko duena. Kontu asko dira denbora eta espazio ezberdinetan bizi izandakoak eta gai bakarra, sendi eta harreman absurdoen kate luzea edota ezusteen sare zabala.

Baina sintaxi honen dotorezia eta indarra pertsonaien kateatzean legoke, pertsonaia batetik bestera baitaroa kontaketa galerarik gabeko ibilbidean. Pentsamendu zehatza eta lehorra da pertsonaien koro honetan ahots bakarrak aditzera ematen diguna. Izan ere, gizartea ispilu, sendiko hartu-emanen eta beronetan eman ohi diren ezintasunez eta gezurrez mintzatu zaigu Berest; eta horretarako emakume bat aukeratu digu pertsonaia askoren arteko kate-begi, gaitzat alabatasun eta amatasun absurdo bat duela gidari.

Sendi harremanen eta elkarbizitza modernoaren irakurketaz gain, espero ez diren bizi konstanteen leherkaria bilakatzen da testuaren hasieratik bukaerarako promenadea. Lehen orrialdeko eztandatik azken orrialdera arte narrazioak tentsioa ez baitu galtzen, are gehiago, orriak pasa ahala interesa pizten doa ezusteen eta kontakizunera sortzen diren pertsonaia berrien harira. Bada gurean emakume idazle gazte bat narratzaile aparta eta gaien aukeraketan erabat samina, Anne Berest irakurritakoan testuarteko gisa gogoan izan dudana. Testuarteko edota paratestu, kontua da 32 urte besterik ez eta lehen eleberria idatzi duen emakume honek, Alberdanian Jon Muñoz lagun, euskal literaturari ekarpen ederra egin diola eta ezin bestela izan, Sofoklesek Edipo Erregearen ahoan jarritako galdera baitu sarreran aipu: “Nola izan liteke sortu nauen hura, niretzat ezer ez den hura bezalakoa?”.



txalaparta



www.txalaparta.com